

H5N8 oso patogenoa den hegazti-gripeari (OPHG) buruzko azken berriak 15/03/11

Inprimakiaren hasieraJoan den otsailaren 24an **Hungariako agintariak** baietsi egin zuten **H5N8 oso patogenoa den hegazti gripearen (OPHG) foku bat, ahate-ustiategi batean.**

Azken hiru hilabeteetan H5N8 OPHGaren **hamabi foku atzeman dira Europar Batasunean**, etxeko hegaztien artean. Horiei gehitu egin behar zaizkie Holandan atzemandako bost fokuak, Alemaniako laurak, Erresuma Batukoa eta Italiakoa.

- [H5N8ren Europako fokuei buruzko albistea](#) - ELIKA

Aurretiazko emaitzen arabera, birusa estu lotuta dago Asiako anduekin eta orain arte sekuentziatu diren Europako birusekin.

Hegaztiak honako sintoma hauek izan zituzten: sintoma neurologikoak, sudur-isuria eta hilkortasun-tasa handitzea. Sintoma horiek susmarazi zuten gaixotasunaren presentzia. Gizentzeko 21.170 ahate dituen ustiategi intentsibo bat da, Bèkès eskualdean dagoena.

Ustiategiko hegazti guztiak hil behar izan dira, baita ustiategi kaltetuarekin kontaktua izan zuten inguruko hiru ustiategietako etxeko hegazti guztiak ere. Gainera, segurtasun-eremu bat eta zaintza-eremu bat ezarri dituzte. Horietan atzeko patioko hainbat abeletxe daude, eta guztira 18.000 animalia dituzte.

MAGRAMaren arabera, gaur arte **Espanian ez dago gaixotasunaren susmorik.**

- [H5N8 OPHGaren fokuari buruzko aurkezpena. Hungariako Nekazaritza Ministerioa](#) - EE
- [Hungariako H5N8 OPHGaren inguruko albistea](#) - RASVE
- [H5N8 OPHG Europan sartzeko bideei buruzko albistea](#) - ELIKA

Higiene-jardunbide egokien gida eztiaren sektorerako 15/03/02

Aragoiko Elikaduraren eta Nekazaritzako Elikagaiak Sustatzeko Zuzendaritza Orokorrak sustatu egin du **eztiaren sektoreko higiene-jardunbide egokien gida**. Sektorea bera aritu da horretan lanean, Abeltzaintzako Osasun Defentsako taldeetako teknikarien eta Abeltzaintza Baliabideen Zerbitzuko funtzionarioen bidez.

Gaur egun, Aragoian **1.219 erle-ustiategi daude erroldatuta**; guztira 104.082 erlauntz dira, eta **urtean 619 tona ezti** inguru ekoizten dituzte. Ustiategi gehienak (% 68) txikiak dira: erroldaren % 30 eta ezti-ekoizpen guztiaren % 10 dira. Gainerakoetan ustiapen komertziala egiten da, bai beste jarduera batzuen osagarri gisa (ustiategien % 30 eta erlauntzen % 60), bai eksklusiboki (ustiategien

% 2, erlauntzen % 20 eta ekoizpenaren % 30).

Gidaren **helburua da erraz aplikatzeko tresna operatibo bat ematea erlezainei**, erabat egoki daitezen arauak ezarritako eskakizun guztietara; gainera, besteak beste, honako atal hauek biltzen ditu:

- Eztiarekin lotutako arriskuak.
- Eztiaren sailkapena.
- Fluxuaren diagrama.
- Higiene-jardunbide egokiak erletxean.
- Jardunbide egokiak ezti biltzeko, ateratzeko eta egokitzeko prozesuetan.

[Higiene-jardunbide egokien gida, eztiaren sektorerako](#) - Aragoiko Gobernua
[Aragoiko erlezaintzari buruzko webgunea](#) - Aragoiko Gobernua

Komunikazio-estrategia, akainek transmititutako gaixotasunen inguruan - ECDC 2015

[Presta zaitetz akainen sasoirako!](#) lemapean, [ECDC](#)k eguneratu egin ditu European akainen bidez transmititutako gaixotasunei buruzko komunikazio-materialak.

Eguneratze horrek baliabide hobetuak eta tresna berriak ematen ditu, osasun publikoko agintariei laguntzeko, [komunikazio-ekimenak](#) egin behar dituztenean, gaixotasunen transmisioa prebenitzeko programetan.

Akainek ez dute gaixotasunik eragiten, zuzenean, gizakien artean; baina, euren ziztaden bidez, patogenoak transmiti ditzakete, eta, ondorioz, gaixotasunak eragin.

Materiala egiteko aintzat hartu dira bektoreen bidez transmititutako gaixotasunen zientzia-ezagutza eta Osasun Publikoko komunikazioan egindako aurrerapenak. **Mezu gakoak zuzentzeko eta honako hauen artean gaixotasunak saihesteko diseinatu da: haurrak , eremu endemikoetara doazen bidaiariak, osasuneko profesionalak eta eremu endemikoetan bizi den jendea, oro har.**

Materialak honako hauei buruzko informazioa biltzen du:

- Nola saihestu akainen ziztadak
- Nola ezagutu akainak atzeman daitezkeen habitatak.
- Nola ezagutu eta desagerrarazi akainak modu egokian.
- Nola ezagutu akainen bidez transmititutako gaixotasun nagusiak, eta nola tratatu.
- Akainen bidez transmititutako gaixotasunak saihesteko neurriak.

Berrikuntza gisa, materialak **argazkien biblioteka bat biltzen du**, hainbat **akain-espezieren kalitate handiko irudiekin.**

Material horiek erraz egoki daitezke beharrian nazionaletara. Halaber, oinarria eman dezakete, komunikazio-kanpaina berriak abiarazteko.

[Presta zaituzte akainen sasoirako! ECDC](#)

Haurdun dauden emakumeak eta Q sukarra **15/02/10**

Erresuma Batuko Osasun Publikoko zein Nekazaritza eta Abeltzaintzako agintari eskudunek mezu bat igorri dute, haurdun dauden edo egon daitezkeen emakumeen artean hainbat gaixotasun prebenitzeko.

Informazio-oharrak emakumeei ohartarazten die euren osasuna eta fetuarena arriskuan jar dezaketela ardiekin edo abeletxeko beste edozein animaliekin kontaktuan badaude animaliak erditzean; izan ere, animalia horiek hainbat infekzio (besteak beste, Q sukarra) kutsa ditzakete.

Nahiz eta animalia infektatu batek kutsa ditzakeen haurdunen kopuru oso-oso txikia izan, garrantzitsua da haurdun dauden emakumeak kontziente izatea gerta daitezkeen arriskuez eta neurri egokiak hartzeko garrantziaz.

Arrisku horiek ez dira soilik animaliekin eta urteko garai zehatz batekin (udaberrian jaiotzen dira arkume gehienak) lotzen. Kumea izan duten behi-aziendarekin eta ahuntzekin kontaktuan egoteak ere antzeko arriskuak dakartza.

Infekzio-arriskua murrizteko, haurdun dauden emakumeek:

- ez diete lagundu behar animaliei (ardi, ahuntz, behi eta abarrei) erditzean;
- ekidin egin behar dute kontaktu izatea abortatutako edo jaioberri diren arkume/txekor/antxumeekin. Halaber, ekidin egin behar dute kontaktua izatea karenarekin edo kutsatuta egon daitezkeen materialekin (animalien ohantzeekin, adibidez);
- ekidin egin behar dute kumea izan duten animaliekin, horien kumeekin edo karenarekin kontaktuan egon diren arropak, botak edo edozein material manipulatzeko;
- ziurtatu egin behar dute kumea izan duten ardiei edo beste animalia batzuei lagundu dieten pertsonetikiko kontaktua modu egokian gauzatzen dela (hau da, pertsona horiek higiene-neurri egokiak hartu dituztela, kutsatuta egon daitezkeen arropak ez daramatzatela, eta abar).

Gainera, haurdun dauden emakumeek mediku batenagana jo beharko dute sukarra edo gripearenaren antzeko sintomak badituzte edo abeletxe baten inguruan kutsatu egin direla sumatzen badute.

Azkenik, agintariek abeltzainei adierazi diete erantzukizuna dutela haurdun dauden emakumeen, euren familiako kideen eta abeletxera hurbil daitezkeen langile publiko zein pribatuen artean arriskuak murriztean.

[Erresuma Batuko agintarien prentsa-oharra](#)

[Albaitaritzako sendagai berriak European](#) [15/02/10](#)

2014an, Europako Sendagaien Agentziak ([EMA](#)) gomendatu du baimentzea **albaitaritzako 20 medikamentu berri**. Horietako batzuk espezie txikientzat edo gaixotasun arraroetarako dira.

Medikamentu horien artean dago **Schmallenberg birusaren kontrako lehen txertoa**, eta gomendioa da European baimentzea, eta behi eta ardientzat da.

Guztira gomendatutako hogeit hamar sendagaietatik hamaika laguntza-animalientzako dira (adibidez, txakurrentzako txertoak) eta bederatzi elikagaiak ekoizten dituzten animalientzako (eskortako hegaztiak, txerriak, behiak eta ardiak).

Txerriak Txerrien Izurrite Klasikoaren birusaren (PPA) aurka immunizatzeko txertoen lehen gomendioak, txerto tradizionalekin ez bezala, **ahalbidetu egiten du naturalki edo txertorik jaso gabe kutsatu diren animaliak identifikatzea**. Oro har, European, gaixotasuna kontrolatzeko, animalia hitzen da, eta produktu horrek aukera emango luke txertoen bidez gaixotasuna kontrolatzeko.

Europako Sendagaien Agentziari buruz

EMA Europar Batasuneko erakunde deszentralizatua da. Londresen du egoitza eta 1995ean hasi zen martxan.

Farmazia-konpainiek eginiko sendagaiak merkaturatzeko baimen-eskaeren ebaluazioa zientifikoa egiten du, hala gizakiek nola animaliek erabil dezaten Europar Batasunean (EB). Baimen hori Europako Batzordeak (EB) ematen du, eta balioa du EBko estatu kide guztietan, baita Islandia, Liechtenstein eta Norvegia bezalako herrialdeetan ere.

[Txostena](#) - AEM

[Albaitaritzako medikamentuen zerrenda](#) - AEM

[Informazio gehiago Europako Sendagaien Agentziari buruz](#)

[H5N8 hegazti-gripearen agerraldien gaur](#) [egungo egoera European 15/02/10](#)

Joan den urtarrilaren 20an, Alemaniako agintariek baieztatu egin zuten H5N8 Oso Patogenoa den Hegazti-gripearen foku berri bat. Horrekin, **Alemanian 5 foku jakinarazi dituzte**.

Agerraldia **komertziala ez den ustiategi baten** atzeman zuten. Bertan, **hainbat espezieetako 98**

hegazti eta abeletzeko beste animalia batzuk zeuden.

2014ko azaroaren hasieratik atzeman zen **H5N8 Oso Patogenoa den Hegazti-gripea Alemanian, Herbehereetan, Erresuma Batuan eta Italian**. Kaltetutako estatu kide guztiek berehala hartu dituzte neurriak, hegazti-gripearen aurkako EBko legediarekin bat etorriz (2005/94/EC Zuzentaraua). Foku honetan, zehazki, gainerako oiloak, ahateak eta antzarak hil dira, eta ustiatégian zeuden beste hegazti-espezieen laginak hartu dituzte, birusik ez dutela ziurtatzeko.

Europan, **hau da birus honen egoera**:

IA H5N8 fokuak Europan

Herrialdea	Noiz egin zen 1. jakinarazpena	Foku-kopurua
Alemania	2014/11/06	5
Erresuma Batua	2014/11/16	1
Holanda	2014/11/16	5
Italia	2014/12/16	1

Ez da egon kaltetutako ustiatégitik arrisku-mugimendurik beste estatu kide batzuetara, ez eta beste herrialde batzuetara ere.

Jakinarazitako fokuen **jatorria, ziurrenik, ur-hegazti migratzaileekiko kontaktua izan da**. Beraz, gogorarazten da beharrezkoa dela hegazti-ustiatégietako biosegurtasun-neurriak indartzea, bereziki baso-hegaztiekiko kontaktua ekiditeko neurriak.

[H5N8 Hegazti-gripearen aurreko egarraldiak](#) - ELIKA

[Zientzia-txostena: H5N8 Hegazti-gripea](#) - EFSA

[H5N8 Hgeazti-gripeari buruzko aurkezpena](#) - EFSA

Dermatosi Nodular Kutsakorren arriskuan **EBn 15/01/30**

Dermatosi Nodular Kutsakorra (DNC edo LSD-Lumpy skin disease, ingelesez) ganaduaren gaixotasun birikoa da, galera larriak eragiten dituena, batez ere animalia gazteen artean. DNCA endemikoa da Afrikako eta Asiako herrialde askotan, eta laster hedatzen ari da Ekialde Ertain osoan (Turkia barne).

DNCA bektore mekanikoen bidez transmititzen da, baina zuzeneko eta zeharkako transmisioa ere gertatzen da. Gaixotasuna, nagusiki, animalia infektatuak garraiatzean eta bektoreen bidez hedatzen da infektiorik gabeko eremuetara.

Bada, gaixotasuna Europara sartzeko arriskua baloratzeko, EFSAk azterlan bat eskatu zion Animalien Osasunari eta Ongizateari buruzko Adituen Taldeari (AHAW), gaixotasunaren egoera orokorrari buruzkoa eta ezagutza eta teknika berrienak aintzat hartuko zituen.

Aditu taldearen arabera:

- Aukerak daude gaixotasuna EBn transmititzeko, animalien legez kanpoko garraioaren bidez. • Arriskua, nagusiki, jatorrizko herrialdeko prebalentziaren eta legez kanpo lekualdatutako animalien kopuruaren arabera da.
- Egindako simulazioen arabera, zantzu kliniko orokorrak dituzten animaliak hiltzea nahikoa izango litzateke jatorriaren inguruko epidemien % 90i eusteko; baina epidemien gainerako % 10 jatorrizko fokutik 400 kilometrora heda daiteke, lehenengo sei hilabeteetan.
- Infektatutako abeletxeetan artalde osoa hiltzeak nabarmen murrizten du DNCaren birusaren hedadura, eta zenbat eta lasterrago atzeman kutsatutako abeletxeak eta zenbat eta lasterrago hil animaliak, orduan eta handiagoa da murrizketaren magnitudea.
- DNCaren aurkako txerto bizi estutuak besterik ez daude.
- Zaintza aktiboa, atzemate lasterra eta infektatutako artaldeak laster hiltzea dira DNCA kontrolatzeko neurri eraginkorrak.
- Gehiago ikertu behar da bektoreek DNCaren transmisioan duten eragina.
- Komeni da sentsibilizazio-kanpainak egitea, abeltzainei eta albitariei begira, gaixotasuna ezagutzea sustatzeko.
- EBren eta herrialde mugakideen arteko lankidetzak sustatu behar da, gaixotasunak mugez gaindi hedatzea eragozteko.

[Zientzia-txostena: DNC](#)

Hausnarkari Txikien Izurria EBn 15/01/21

Hausnarkari Txikien Izurria ahuntzen eta ardiaren gaixotasun birikoa da, eta honako ezaugarri hauek ditu: sukarra, zauriak ahoan, beherakoa, pneumonia eta, batzuetan, heriotza. **Afrikan, Arabiako Penintsulan, Ekialde Ertainean, Asiako hego-mendebalean eta Indian dago.** Txinak 2007an jakinarazi zuen lehenengo kasua, eta Ipar **Afrikan Marokon erregistratu da lehenengo, 2008an.**

Gaixotasuna Europan sartzeko arriskua baloratzeko, EFSAk azterlan bat eskatu zion Animalien Osasunari eta Ongizateari buruzko Adituen Panelari (AHAW), gaixotasunaren egoera orokorrari buruz, ezagutza eta teknika berrienak aintzat hartuta.

Azterlan horren ondorioen artean honako hauek daude:

1. **Gaixotasun biral ez zoonotikoa** da, larria eta hausnarkari txikien artekoa. Paramyxoviridae familiako morbilivirus batek eragiten du, eta lotuta dago Behien Izurritearekin, elgorriarekin eta Txakurren Mukieriarekin.
2. **Oso zabalduta dago Afrikan, Ekialde Ertainean eta Asiako hegoaldean.** Eskualde horietan txirotasuna arintzeko, kontrolatzea garrantzitsutzat jotzen den animalia-gaixotasunetako bat da.
3. Birusak gaixotasun larria eragiten du, akutua denean: sukarra, arnasa-sistemak, mukosen kongestioa eta nekrosia, beherakoa, abortua eta immunosupresioa eragiten ditu. **Heriotza-tasa % 10tik eta % 90era bitartekoa izan daiteke.**
4. Nagusiki, **transmisioa infektatutako animalien eta euren jario freskoen edo gorozkien kontaktuaren bidez gertatzen da.** Ahuntzak minberagoak omen dira, ardiak baino, eta horietan birusa atzeman gabe ibil daiteke denbora-tarte batean.
5. **Hausnarkari txikien merkataritza-mugimendua (legekoa edo legez kanpoko) da**

gaixotasuna mugez haraindi hedatzeko aukera gehien dituen kausa. Izan ere, Afrikako ekialdearen eta Arabiako penintsularen artean sortzen da. Bertan, tokiko kulturetako erlijio-jaien karietara egiten diren bat-bateko ganadu-mugimenduek eragin kaltegarria izan dezakete gaixotasuna mugatzeko lanetan.

6. **EBn, arrisku-iturri handiena infektatutako animalien legez kanpoko garraioa da.**
7. **Ez dago aukera handirik EBn Hausnarkari Txikien Izurritea endemiko bihurtzeko,** aintzat hartuta EBko egungo politikaren berezko kontrol-neurriak, nahiz eta gaixotasuna endemikoa den EBren herrialde mugakide edo hurreko batzuetan.
8. **Txerto bizi arinduak erabilgarri daude,** gaixotasunari aurre egiteko.
9. **Txerto inaktibatuak ez daude erabilgarri,** eta gaixotasunari ematen zaion erantzun immunologikoa dela eta, ez litzateke erabat eraginkorra izango.
10. Hausnarkari Txikien Izurritearen epidemiatik Marokon ikasitako lezioek erakusten dute **gaixotasuna nazio-mailan ezarritako txertatze masiboko kanpainen bidez kontrola daitekeela,** betiere behar besteko bitartekoak badaude eta egoki aplikatzen badira.

Informazio gehiago:

[Zientzia-txostena, Hausnarkari Txikien Izurriteari buruz](#) - EFSA

[Laburpen-fitxa: Hausnarkari Txikien Izurritea](#) - ELIKA

[Hegazti Gripearen foku berriak Europan](#) [15/01/16](#)

Joan den **2015eko urtarrilaren 7an**, Alemaniako agintariek **Patogenizitate Handiko [Hegazti Gripearen](#) (PHHG) foku berri bat egiaztatu zuten, H5N8 azpi-motakoa**, Rostock udalerriko **zoo batean**. Zehazki, hainbat espezieetako 495 hegaztiren bilduma zegoen barruti horretan.

Hartutako neurrien artean, **berrogeialdian** jarri da zooa eta **57 animalia hil dituzte**. Beste alde batetik, Alemaniako agintariek zooetarako 2005/94 Zuzentarauan xedatutako salbuespenei helduko diete. Horrek, hain zuzen ere, arriskuan dauden zenbait espezie hiltzea saihestuko du, betiere gune estaliren batera eramaten badira bertan isolatuta egoteko, zaintzapean egoten badira eta aldizkako laginketak egiten bazaizkie. Hala, une oro saihestuko da lekuz aldatzea.

Orain arte, **H5N8 azpi-motako 11 PHHG foku** jakinarazi dira Europan:

- 4 foku Alemanian
- 1 Erresuma Batuan
- 1 Italian
- 5 foku Holandan

Gainera, birusa basoko hegaztietan atzeman da, hala Holandan nola Alemanian.

Gaur egun, **PHHGren H5N8 birusa munduan barrena hedatuta dago**; izan ere, duela gutxi atzeman dute Estatu Batuetan eta 2014aren hasieratik Hego Koreako ustiategietan eta Japongo basoko hegaztien artean.

Hemen aurki daitezke Espainian birusa sartzea ekiditeko gomendatutako **biosegurtasun-neurriak**:

1. Oinetakoak aldatzea ekoizpen-hegaztiak dauden nabeetara sartzean.
2. Derrigor erabiltzea apatxak garbitzeko putzuak ustiategiaren sarreran eta nabe bakoitzean, maiztasunez berrituko den soluzio desinfektatzailea eta guzti.
3. Ez sartzea kanpoan egon den inolako material edo tresnarik; besteak beste, ohantzeak, lastoa edo beste edozein material.
4. Zuloak itxita uztea eta edateko ura higienizatzea. Lurrazaleko ura ez erabiltzea.

HGri buruzko informazio gehiago nahi izanez gero:

- [HGren zaintza-programa Espainian 2015](#) - MAGRAMA
- [HGri buruzko informazioa](#) - EE
- [HGren gaixotasunari buruzko fitxa](#) - ELIKA

[TRACES sistemaren ikuskaritza Espainian](#) [15/01/08](#)

Europako Batzordearen Albaitaritza eta Elikadura Bulegoko (FVO) ikuskatzaile-ekipo batek Espainia bisitatu zuen 2014ko ekainean, agintari eskudunek TRACES sistema egoki erabiltzen zuten ebaluatzeko.

TRACES informatika-sistema integrala da, Europako Batzordearen Osasuna eta Kontsumoa Zuzendaritza Orokorrak kudeatutakoa, eta animalien eta animalia-jatorriko produktuen inportazioa, mugimenduak, esportazioak eta erkidego barneko merkataritza jakinarazteko, ziurtatzeko eta kontrolatzeko balio du.

Mundu osoko operatzaile ekonomikoek (sektore pribatua) eta agintari eskudunek erabil dezakete sare hori. Webaren bidez erabiltzen da, denbora errealean atzera eta aurrera begira aztertzeko animalien eta animalia-jatorriko produktuen mugimenduak.

Honako hauek dira FVOren txostenaren ondorio nagusiak:

- Espainiak agintari eskudunak izendatu ditu TRACES erabiltzeko, animalia-jatorria zein bestelako jatorria duten produktuekin eta animalia biziak. Mugako Ikuskaritza Postuek (MIP) egoki darabilte, batez ere agintari zentralen erantzukizunaren mende daudelako.
- Alabaina, agintari eskudunek autonomia-erkidegoetako animalia-osasuna kontrolatzeko besterik ez darabilte TRACES. Autonomia-erkidegoetako Osasun Publikoko agintari eskudunek sistema ez erabiltzeak eragotzi egiten dubeste estatu kide batzuekin informazioa trukitzea, hil edo berriz inportatu behar diren animaliei dagokienez.
- Oro har, MIPetako eta Tokiko Albaitaritza Unitateetako (TAU) langileek esperientzia dute TRACES sistemarekin: Osasun Publikoko eskualde-mailako agintari eskudunak dira salbuespena, ez baitute sistema erabili; izan ere, ez dute sarbiderik, eta, gainera, ez dute prestakuntzarik jaso. Beraz, Espainiak ez ditu betetzen TRACES erabiltzeko gutxieneko betekizunak hiltegiatan eta animalia-jatorriko berrinportazioetarako kontrol ofizialak erregistratzeko.

- Oro har, animalia biziak inportatzeari eta Espainiatik kanpo doazen animalia biziak Batasunaren barnean mugitzeari dagokionez, TRACES egoki erabiltzen da. Zenbait bidalketa zehatzen jarraipenean atzemandako gabeziek (animalia-jatorriko azpi-produktuak Batasunaren barneko merkataritzarako, berrinportazioak, suntsitzeko produktu-bidalketak, hiltegieta bidalitako animaliak) erakusten dute agintari eskudunen arteko komunikazioa ahula dela eta bidalketen trazabilitatea ez dagoela bermatuta, kontrolak ez direlako TRACESen erregistratzen.
- MIPetan sistema bat dagoezarrita, TRACESen erabilera egokia egiaztatzeko balio duena. Alabaina, datuak erregistratzeko betekizunak, oraindik orain, ez dira kontrolatzen eta betetzen. Ez dago sistema ezarririk, autonomia-erkidegoetako animalia-osasuneko agintari eskudunek TRACES egoki darabiltela egiaztatzeko, merkataritza-agirien kontrolari dagokionez, eta TAUk ere ez du tokiko merkataritzako osasun-ziurtagiriak kontrolatzeko sistemarik. Beraz, gabeziak ez dira denboraz atzematen eta zuzentzen.

[FVOren txostena](#)